

IZEN GEOGRAFIKOAK

Donostia, 1988-IV-29

Alfonso Irigoien

Izen geografiko arrunton zerrenda hau Euskaltzaindiari oharrak egin eta ondo ikertu ondoan zerrenda berri bat presta lezan eskatzen niola joan den abenduan neurorrek aurkeztatu nuena oinarritzat harturik osatu da. Izan ere zenbait euskaltzainek bidalirik edota ahoz esanik jaso diren oharrak kontuan hartu ondoan egin da. Eskabidearen arrazoia Deustuko Unibertsitatean Gasteizko Lurralde Antolaketa-rentzat prestatzen diren mapetarako normazko nomenklatura bat, gero zabalago erabil litekeena, beharrezko dela ikustea izan zen. Ohar egileak, batzu izkribuz, beste batzu ahoz, honako hauek dira:

Izkribuz: A. Irigoien bera, Aita Villasante, Pello Salaburu, J. L. Lizundia, F. Krutwig, J. M.^a Satrustegi, J. San Martin, Patxi Altuna.

Ahoz: J. M.^a Satrustegi, F. Krutwig, Aita A. Zavala, J. San Martin, P. Charriton,...

Edozein modutan ere zerrenda hau irekirik gelditzen da etorkizunean ere zuzen eta osa dadin, Euskaltzaindiaren oneritzia badu ere.

Ingurune fisikoa: lehorreko eta itsasoko orografia

Gailurrak, Gainak

Mendi-arroak

Mendia (Baina erdarazko beste lekuetako formak errespetaturik: *serra*. Euskaraz ez da *mendia* beste hitzik erabiltzen. Kanpoko mapak euskaraz egin behar balira erdarazko *Sierra de Guadarrama* euskarara *Guadarramako serra* itzuli beharko litzateke bertako ohituraren itxura zeharo aldatu gabe. Berdin gertatuko litzateke rusoen *estepa* edo Ameriketako *sabana* hitzekin, bertakoa gorde behar bailitzateke), **Serra** (batez ere Euskal Herritik kanpo erdaraz erabiltzen direnentzat), **Mendiserra**

Mendi katea (Batzu erdarazko *sierra* adierazteko erabiltzen hasi berri dira, baina *mendi katea* berez erdarazko 'cadena de montañas' da, beraz 'cordillera')

Medio fisico: orografia terrestre y marítima

Elevaciones del terreno en general

Elevaciones y depresiones

Sierra

Cordillera

Ingurune fisikoa:**Ihorreko eta itsasoko orografia**

Mendia, Basoa (bakoitzak bere lekua duela)

Basapea (1), **Beko basoa** (azkenengo hau Urdiainen)

Muinoa, (Azkue-k *Muñatza* ere badu bere hiztegian Lardizabal gipuzkoarrenganik bildurik)

Muna

Mendi baten gailurrak, gainaldeak, gainak

Gaina / Gana, Tontorra

Haitza / [h]atxa (Bizkaian)

Haizpunta, Haitzorrotza

Lur azaleko sakonak, Burkandak (Baztanen)

Lepoa (Arin: *Añeiko lepoa*, Ataun-en)

Mendatea (ez da hitz zaharra), **Harratea**, (Arin: *Alleko arratea*, 1528: *Arrates de Alleco*, Ataun-en), (Arantzazun hitz arrunta), (*Mugarako arratea*), (hitz konposatua da: *harr- [harri] + ate*), **Portua** (*Arabako portua*)

Ataka (Arin: *Beaskingo atakak, Ormazaretako atakea*, Ataun-en), (*ate*-ren diminutiboa), **Harrataka** (*harrate*-ren diminutiboa, Nafarroan), **Ateka** (Ifarraldean)

Sakona

Bizkarra

Aska

Ibarra, Harana (nola berezi behar dira bata eta bestea? *Ibarra* 'vega' moduan ere erabili izan da)

Haitzartea, Arteka (Baztanen), **Bitarte estua**

Amildegia, Zenterna (Pello Salaburu-k dioenez azkenengo hau Baztanen hurrengo zentzuan erabiltzen da: 'malda behera handi bat, gainetik ikusia eta anitzetan errekan bukatzen dena (bere ustez 'precipicio')

Medio fisico:**orografia terrestre y marítima**

Montaña, monte

Monte bajo

Colina

Ribazo, porción elevada de un terreno

Puntos elevados de una montaña

Cima

Peña

Pico

Depresiones de la superficie terrestre

Collado

Puerto

Portillo

Hoya

Loma

Zanja, abrevadero

Valle

Desfiladero, cañón

Precipicio

(1) *Basapea*.— Hitz zaharra eta Azkue-ren hiztegian esanahi horrekin ematen ez dena da. Durango inguruetakoko dokumentu zahar baten *sobre el aprovechamiento de los basapes* hitz egiten da Xabier Santano Deustuko Unibertsitateko Deikerr-eko lagunak diostanez. Izan ere toponimia zaharrean *-be* amaiera, eta aipaturiko kasuan *-pe* aldagarria, erdarazko 'suelo' zentzuan agertzen da, baita orain euskaraz hitz egiten ez den Pirineoetako zenbait lekutan ere, ikus ene *En torno a la toponimia vasca y circumpirenaica*, Bilbao 1986. Horretara formazioan *baso* + *-pe* dugu, 'suelo de zona no cultivada'. Egungo egunean ere Lekeitio-n erdarazko 'en el suelo' adierazteko *beièn ganièn* esaten da, hau da, 'encima del suelo', Arratian *lurréan*. Pasai San Juanen *itxáspiá*, < *itsaspea*, erabiltzen dute erdarazko 'marisma' adierazteko, hau da, 'suelo de mar'; hala bildu nuen 1976-garren urteko maiatzean Manuel Alvar-ek eskaturik egin nituen galderetan *Atlas lingüístico de los marineros peninsulares* delakorako. Azkue-k *basape bota* 'echar al desprecio' jasotzen du hiztegian, seguru asko esaera horren oinarrian hitz berbera dagoela.

Ingurune fisikoa:
lehorreko eta itsasoko orografia

Eztarría (Arin: *Eztarríko sarioa*, 1792: *Eztarríko sarioa*, *Maumendíko eztarríe*, 1688: *Marumendíko eztarrí*, *Salbíko eztarríe*), **Zintzurra** (Baztanen)

Soila (Nafarroan eta Arantzazu-n), **Baso soila** (Eibarren)

Trokartea (oronimoa bakarrik)

Altubidea (*altxu*, 'rebaño', Ekialdean)

Troka, **Arroa** (Azkenengo hau J. L. Lizundia-k 1987-II-6-an egin zidan kartan dioenez "Diputazioak Durango-ko batekin egindako eskrituran agertzen" da, "Monte llamado *Iturrinaga-emeticoa*", "... desde *Iturrinaga-arro* a *Arandia*", hau da, 'barranco de Iturrinaga'. Aita Villasante-k Arantzazu-kotzat ere bidali du), **Sakana** (Nafarroan)

Errekarroa

Lur laua

Ordeka, **Ordokia**, **Gainzabala**

Lautada

Zabala

Harrídi (Nafarroan)

Lur aldapatsua, **Lur erripatsua**, **Malda**, **Aldasgora**

Hegia

Aldapa, **Aldatsa**, **Malda**, **Patarra**

Berezko husguneak

Harmaila (Nafarroan)

Leizea

Koba, **Kobazuloa**, **Harpea**, **Leizezuloa**

Harpea, **Lehorpea**

Ezkupea ('haizeen babespea' Nafarroan. Seguru asko hitz konposatua da *ezkutu* eta *-be(he)* dituela oinarrian)

Itsas eta kostaldeko gain-sakonak

Irla / Isla

Kostaldea, **Itsasegia**, **Itsasertza**

Muturrak eta Puntak (Pasai San Pedro eta Getarian *muturra*, 'punta, cabo pequeño')

Berezko portua

Hondartza, **Hondarra**

Kantila (Ondarroa *kantillè*, Lekeitio, Pasaia eta Getaria *kantilla*)

Labarra

Aremuna (Krutwig-ek dioenez Plentzian, baita *las* artikulua daramala erdaraz ere)

Haitza, **Arroka**

Areatza

Isurigunea

Medio físico:
orografia terrestre y marítima

Garganta

Raso

Cañada

Cañada, camino de pastores

Barranco

Barranco con regato

Terreno plano

Plano, altiplano

Llanura

Llana

Pedregal

Terreno pendiente

Ladera, línea de los montes

Cuesta

Cavidades naturales

Roca estratificada

Sima

Cueva

Abrigo de roca, etc.

Lugar abrigado

Relieve litoral y marino

Isla

Costa

Cabos y puntas

Puerto natural

Playa

Acantilado

Pared cortada a tajo, tierra costanera

Duna

Escollo, arrecife

Arenal

Cuenca

Ingurune fisikoa:
Hidrografia

Berezko ur multzoak
Ozeanoa
Itsasoa
Golkoa
Badia (Bermeo *badi[dz]è*, Lekeitio *bari-[dz]ià*)
Senada (Bermeo *senái[dz]iè*, Ondarroa *senádi*, Lekeitio *Senádià*), **Kala**
Lakua
Aintzira, Zingira
Uharka
Urtegia
Itsaspea (1), **Padura / Fadura / Madura**
 (azkenengo hau ez da gehienetan itsasokoa izaten)
Berezko butzua / Berezko putzua
Idoia
Itsasestua
Ahoa
Ur multzo artifizialak
Patina
Butzua / Putzua
Ur-biltegia
Berezko ubideak
Ibaia, Itsasadarra, Errioa
Ibaia
Erreka, Latsa
Uharrea, Baserreka (Baztanen)
Ur-jauzia
Iturria
Ubegia, Iturburua, Zurrutza (Baztanen)
Ubide artifizialak
Ubidea
Errekena
Errekastoa
Tuberia
Estolda
Luizia, Lur jauzia (Aizarnan), **Luperia**
 (Eibar eta inguruetan)
Eraikuntza hidraulikoak, Ur lanak
Presa, Andapara, 'cauce del molino, saetín', **Aldapaia**, berdin.
Ugatea
Haitzak, Arroak
Isuria (J. M.^a Satrustegi-k Nafarroako-tzat emana), **Ganbarru**
Isuri punta (id.)
Meandroa (2)

Medio fisico:
Hidrografia

Masas de agua natural
 Océano
 Mar
 Golfo
 Bahía
 Ensenada, cala
 Lago
 Laguna
 Estanque
 Pantano, embalse
 Marisma
 Charco natural en la roca
 Balsa
 Estrecho
 Bocana
 Masas de agua artificiales
 Cisterna
 Pozo
 Depósito
 Cursos de agua natural
 Ría
 Río
 Arroyo
 Torrente
 Salto, cascada
 Fuente
 Manantial
 Cursos de agua artificial
 Canal
 Acequia
 Regata
 Tubería, tubo
 Desagüe
 Corrimiento de tierras
 Obras hidráulicas
 Presa
 Esclusa
 Escollera
 Vertiente
 Divisoria de aguas
 Meandro

(2) **Meandroa**.— ¿Uharana? Bigarrena Nafarroakotzat emana. Formazioaren aldetik argia: *ur* + *haran*. Azkue-ren hiztegiak 'ugertz' zentzua ematen dio Arakistain aipaturik,

Ingurune fisiko: Hidrografia

Ugertza (Bizkaiko Batzar orokorretako agirietan agertzen da eta Azkue-k ere Bizkaikotzat du. Hitz egokia da: *ur + ertz*)

Uharana / Ugarana / Ubarana
Kaia, Nasa

Lekuen izenak

Oihana, Basoa
Pagoa, Pagoak, Pagadia (singularra, plurala eta kolektiboa)

Haritza, Haritzak, Haritzia, eta aldagarriak
Artea, Arteak, Artadia

Eukaliptua, Eukaliptuak, Eukaliptadia
Pinua, Pinuak, Pinadia / Pinudia

Sastraka, Sasia (Pello Salaburu-k Baztan-gotzat emana. Azkenengo hau batez ere 'zarza' da, zentzu zabalagoan erabilirik ere)

Txara, Txaraka

Ibintzea (Satrustegi-k Nafarroarako emana)

Larrea, Pentze / Euntze (Nafarroan), Landa

Lur landuak

Labore lurrak

Soroa (Pello Salaburu-k Baztanerako beste zentzu bat ematen dio: 'belarra moztu ondoan sortzen den belar berria, belar "gaztea", beraz ez da lurra, lurretik biltzen dena baizik), Alorra (Ekialdean) (ikus *landa* hitzerako *dermioa*), Elgea (Zuberoan eta abar).

Labakia, 'lur landu berria' (Satrustegi-k Nafarroarako emana)

Zuina, 'lurrean egon ohi den ezaugarria' (Urdiain), Ezponda, 'soro eta bi nagusiren lurrak bereizten dituen ezaugarria. Batzutan tontorra da (Arruazu). Beste batzutan zuloa errekatxo antzean (Arbizu). Satrustegi-k jakinerazia.

Zelaia, Landa

Baratzea, Ortua

Espila (Nafarroan)

Barruti

Fruta-arbolak

Leku-izena

Medio fisico: Hidrografia

Orilla

Ribera
Muella

denominación de lugares

Bosque
Hayas

Robles
Encinares
Eucáliptus
Pinos
Matorral

Jaral
Rastrojal, rastrojera
Pastizal y prado
Tierras cultivadas
Tierras de cereal
Campo, labrantío

Roturación de terreno para cultivo

Separación entre fincas

Campa
Huerta
Huerto acotado
Terreno acotado
Frutales
Nombre de lugar

erdaraz 'orilla', eta Duvoisin-en ondorik 'ura doan isuri biren arteko sakona', 'depresión entre dos vertientes, por la cual corren las aguas'. Berez bigarren zentzurako aski da *harana*, erdaraz 'valle', zeren normalki haran guztiak ura baitute. Azkue-k *ugaran / ubaran* ere badu, hitz berbera, erdarara 'ribera' moduan itzulirik, eta bigarren mailan 'barrio', eta azken esanahi bietarik lehenengoa egokiagoa dela dirudi, zentzu zabalagoan hartzen baita. Horregatik agian *meandro* esateko *meandro* bera utzi beharko litzateke, latínez *Meander*, *-dri*, grekoz *Μαιάνδρος*, *-ov* (*Μαιάνδρος*, *-ou*), Asia Gutiko oso ibai hogen baten izena, grekoan berean zentzu arrunta ere hartu zuena.

Populamendua: bizileku iraunkorrak

Hiria

Herria (*Oñatiko herria*)

Herburua (*Goienkalde, Barrenkalde* eta *Herburua* Urdiainen, 'herri gaina', 'behereko partea' eta 'gorena', Satrustegi-k dioenez)

Herria

Dermioa (Nafarroan) (Satrustegi-k dioenez: "basoa ez den udal-lurraldea: *alor, pente, barruti*, e.a."), "**Basasoro**, dermatik kanpora landutako lurrak, —Urdiainen basoa baino gorago, mendian zeuden—", "**Baztasoro**, dermioko lur txarretan dauden alorrrak"). *Etxe orrek dermio ederra du* ere esaten da. (Jatorriz latinezko *terminus*, -i, hitzetik dator beranduagoko bokalismoz eta -n- bokal artekoa galdurik) (Pello Salaburu-k Baztanerako honela definitzen ditu *dermio* eta *landa*: **dermioa**, 'etxaldea osatzen duten belai, landa eta iralekuak; **landa**, 'zerbait landatzeko erabiltzen den lekua —baratzea ez—, *arto-landa*, ...)

Herriska

Auzoa, Auzunea, Auzategia (Luzaide-n **Kartiera**)

Urbanizazioa

Hirigune aldeak

Hiri-auzunea

Kalea, Etorbidea, Hiribidea, Pasealekua (azkenengo hau gutxienez Gernika, Otxandio, Bergara, Durango aldean, J. L. Lizundia-k adierazi duenez, baina beste leku askotan ere bai, eta badirudi erabiltzen hasi berri den **ibiltokia** baino egokiagoa dela), (Arantzazun *Jentillen pasealekua*)

Plaza

Eraikuntza bakarra

Baserría, Baserri etxea

Dorrea

Errota, Eihara, Bolua

Plaza, Merkatua

Borda

Txabola, Etxaola, Etxola

Aterpea

Industria, Fabrika

Gai energetiko ez diren idokitzeko industriak

Harrobia (Buztin-, Area-, Legarr-, Arroka-, Igeltsu-hobia)

Burdin-meatzea

Meatzea

Hornidurak

Administrazioguneak

Poblamiento: lugares de habitación permanente

Ciudad, villa

Pueblo (territorio con entidad de población)

Cabo de pueblo

Territorio, tierra

Término

Pueblo pequeño (idem)

Barrio (entidad oficial o no oficial)

Urbanización

Partes de un núcleo urbano

Barrio urbano

Calle, avenida, paseó

Plaza

Edificación aislada

Caserío

Torre

Molino

Mercado

Borda

Cabaña, choza

Refugio

Industria, fábrica

Industrias extractivas de materiales no energéticos

Cantera de piedra (arcillas, arenas, grabas, rocas, yeso, ...)

Mina de hierro

Mina

Equipamientos

Centros administrativos

**Populamendua: bizileku
iraunkorrak****Udaletxea****Historia eta kulturazko leku jakingarriak****Gaztelua****Dorretxea, Dorrea****Jauregia****Erlijioguneak****Basilika****Katedrala****Eliza****Abadia, Abatetxea****Monasterioa****Komentua****Prioratua**

Ermita, Baseliza ("biak noski, bigarren hau ere sartu baita eta hor dago. Irekiak izan behar genuke", dio Satrustegi-k. Hitz konposatua da *basa-* eta *eliza* dituela oinarritz)

Kapera**Santutegia / Saindutegia****Seinaleak****Gurutzea****Mugarria****Komunikabide eta garraioak****Aireportua****Aerodromoa****Itsas-garraioa****Portua****Kaiak****Faruak****Haitzak, Arrokkak****Darsena****Errepideko garraioa****Zubia****Poblamiento: lugares de
habitación permanente****Ayuntamiento (edificio)****Lugares de interés histórico-cultural****Castillo****Casa torre, torre****Palacio****Centros religiosos****Basilica****Catedral****Iglesia****Abadia****Monasterio****Convento****Priorato****Ermita****Capilla****Santuario****Señales****Cruz****Mojón****Comunicaciones y transporte****Aeropuerto****Aerodromo****Transporte marítimo****Puerto (de mar)****Muelles****Faros****Escollera****Dársena****Transporte por carretera****Puente**